



Tai ji sinboloa eta trigramak

guztien jatorria dira. Munduikusera horrek eman izan dio oinarri kosmologikoa txinatar etika pertsonal eta sozialari ere.

Yin-yang deritza munduikusera hori irudikatzen duen sinboloari ere, gure artean ere apaingarritzat maiz ikusi ohi duguna. Zirkulua da, bi alderdi berdinetan banatua lerro sigmoidearen bitartez. Alderdietako bata (yin) beltza da; bestea (yang), zuria. Baina bakoitzak erdi-erdian du kontrako kolorezko zirkulu txikia, kosmosean ari diren errealtateetako bakoitzean kontrakoaren eremuina dagoela adierazteko. Etengabe elkarreaginean ari dira bi printzipioak, eta bakoitzaren eragina txikiagotu egiten da bestearen eragina handiagotzen den neurrian.

Ik. Dao; Daoismoa.

**Kosmozentrismoa**

Munduikusera da, gizakia (mikrokosmosa) munduaren (makrokosmosaren) arabera egina dagoela, horren zatia dela eta horren lege eta egituren menpean dabilela uste duena.

Antropozentrismoaren kontrakoa da: horren arabera mikrokosmosa makrokosmosaren sintesia bait da, mundu materialaren eta izpiritualaren arteko igarogunea.

Ik. Antropozentrismoa; Kosmosa.

**Kreatura**

Ik. Sorkaria.

**Kreatzailea**

Jainkoaren atributu edo dohaina da, diren guztiak berak ezerezetik egin edo sortu dituela adierazten duena. Kristau-teologia-

ren arabera, Jainkoaren kreatzailetasuna ez da une batekoa, etengabea baizik, beraren eta kreaturen edo sorkarien arteko funtsezko harremana finkatzen duenez.

Egile eta sortzaile ere esaten da; baina lehena izenlagunen batekin erabiltzen da gehienbat orduan ("Zeru-lurren egile", "gauza guztien egile", etab.); sortzailea hitza, berriz, izenlagunarekin batera joateaz gain, nahasgarri gerta daiteke teologian, Hirutasunaren teologian "sortu" eta "kreatu" edo "egin" antonimoak bait dira. Ik. Hirutasun txit santua.

Ik. Kreaizioa.

**Kreaizioa**

Sin.: Irazapena

Kosmogonia edo munduaren jatorria eta sorrera argitzeko irakatsietako bat da kreaizioarena. Horren arabera, Jainko pertsonalak bere nahiez ezerezetik eman dio izatea munduari. \*Panteismoari eta \*emanatismoari kontrajartzen zaie, batetik, kreaizioaren irakatsia; eta, bestetik, \*dualismoari.

Irazatea ("irazan") ere esaten da ekin-tza hori. Horregatik \*kreatzaile izatea da irakatsi horrek Jainkoari egotzen dion dohainik behinenetarikoa; diren guztien egile ("egin") ere erabiltzen da kristau-fedea aitortzean, baina ez da teologiaren eta filosofiaren aldetik teknikoak; sortzaile ("sortu"), berriz, arruntki erabili arren kreatzailearen sinonimotzat, Hirutasunaren misterioa adieraztean "egin" eta "sortu" aditzen bereizkuntza oso garrantzizkoa gertatzen da kristau-ortodoxia teologikoan. Ik. Kreatzailea.

Maya-en erlijioan eta Egipton aurki daiteke ere kreaizioari buruzko irakatsia, Itun Zaharreko fede berezia adierazten du kreaizioak. \*Kristautasunak, berriz, Hirutasunazko, \*eroskondeazko, \*piztuerazko eta munduaren azken irudiberritzapenezko irakatsiek in aberastu du kreaizioaren sinestea. Ik. Mundu berria.

Jainkoaren traszendentzia edo haràndikotasuna baieztatzen du funtsean kreaizioak; baina kristau-fedek bere sorkariekin harreman hertsian ikusten du Jainkoa, bereziki \*gizakundearen bidez: \*Traszendentzia eta imnarentzia, biak lotzen ditu kreaizioari buruzko kristau-irakatsiak.

Bestalde, Jainko pertsonalaren sinestea jartzen du azpian kreaizioarenak: bere adimean sortu du aurrenik mundua, eta bere nahimenaren eraginez eman dio kanporako izatea. Mundua Jainkoaren eskuetatik dagoela adierazten du, gainera, kreaizioak: hau da, eta hitz filosofikoagoa erabiliz, munduaren

kontingentzia (ez betikotasuna, ez beharrezkotasuna) eta horren kreazioa batera doaz.

Sortzen duen munduaren eta Jainko sortzailearen artean ez dago ezer tartekorik: ezereza besterik. Jainkoaren hitz soila da kreazioaren eragilea, oso nabarmen agertzen den legez kreazioaren kondairetan, bereziki Itun Zaharrekoan. Ik. Hitz.

Kreazioari buruzko kristau-irakatsiko puntu guztiak ez dira hasieratik oso argi eta zehazturik egon. Esate baterako, Eliz guraso platoniar batzuk kreazioaren aurretiko ekairan bat bazela irakatsi zuten, baina III. mendetik aurrera erabat onarturik gelditu zen ezerezetiko kreazioa Kristau-teologoen artean; horrela bakarrik aitortzen da Jainkoaren \*ahalgutzia eta mundu oso-osoaren haren eskuetatik dagoela.

Filosofian eztabaidatu izan dute kreazioaren eta \*deabruaren arteko harremanari buruz: mundua betidanikoa den ala ez; kristau-fedea horren betikotasuna ukatzen du, eta mundua eta denbora batera sortuak direla adierazten.

Bide horretatik, gaur egun kreazioa ez du teologiak ulertzen Jainkoaren aldi edo une bateko ekintza bakartzat, eta bai denboran zehar aurrera daraman etengabeko prozesu gisa. Berezi \*eboluzionismoak osorik aldatu du Itun Zaharreko kondairatik datorkigun kreazioaren irudikapena; baina horrek ez ditu ukitzen irakatsiaren puntu metafisikoak eta fedekoak; alderantziz, zientzien (astronomia, geologia, biologia, etab.en) ekarpen berriek argiturik eta gaurkoturik eman digute kreazioaren ulerpena, horren irudikapen geldi tradizionala baztertuz.

Kreazioaren ulerpen bizi horretan askoz lekuegokia du gizon-emakumeen sormenak eta horien eginkizunak munduaren aurreapenean eta eraldatzean. Beren ezagutzaren eta \*lanaren (zientziaren, teknikaren eta artearen) bidez mundua lantzen ari direnean, Jainko kreetzailearen nolabaiteko partaide-tza dute gizon-emakumeek, kristau-fedearen arabera: Jainkoaren obra egiten funtsean. Haren eskuetatik atera den mundua ona da berez; eta gizon-emakumeen lankidetzak ere ontasan horretatik edaten du; gizon-emakumeen obra historikoak duen okerreko joeraren eta gaiztotasunaren alde, berriz, gizakia- ren beraren gaiztakeriari zor zaio, Jainkoaren kreaio-lanetik saihesten denari.

Jainkoaren kreaioak balioztatzen badu gizon-emakumeen munduko lana, horien sormen kulturala --eta bereziki artistikoa-- dugu abiapunturik egokiena Jainkoaren etengabeko kreaio-ekintzaren \*misterioa adierazteko.

Ik. Mundua; Kreetzailea; Lana; Kreaio berria; Kosmogonia.

Paulo Agirrebaltzategi

### Kreaio berria

S. Paulok erabili eta Elizako hizkerak beretu duen esakunea, bataiatuaren barne-berrikuntza adierazteko. Kristauari eta kristauen \*elkarteari dagokie esakune hori. Bataioaren sinbologiak eta Jainkoaren irudiaren teologiak eraman du seguruenik S. Paulo \*bataioaren ondorioa kreaio berriaren modura ikustera. Lehen kreaioan Jainkoak gizakia bere irudira egin zuen bezala, bataioan irudiberritu egiten du hura Kristo-gan.

Ik. Antropogonia; Jainkoaren irudia; Kreaioa.

### Kreaizionismoa

Kristautasuneko doktrina teologikoa da, haur berria sortzean, Jainkoak arima berria ezerezetik sortzen duela irakasten duena. \*Traduzianismoari eta arimen aurreizatearen teoriari kontrajartzen zaie.

Ik. Gorputza/Arima; Arimaren aurreizatearen teoria.

### Kredoa

Latinetiko hitza da: "Sinesten dut" esan nahi du, eta fedea aitortzeko formularen latinezko lehen hitza izan ohi da.

1. Sin.: Sinesbidea. Erlijioaren eremuan eta adiera zabalez, erlijio bakoitzak dituen sineskaien sistemari deritza horrela. Ik. Irakasbidea.

2. Sin.: Sineste-bilduma; Fedeko sinboloa. Berezi kristautasunak \*fede-aitormena egiteko eraturiko formula.

Batez ere formula ekumeniko zaharrak deitzen dira horrela, ze Erreformatik sorturiko formulak "konfesioak" deitzen dira gehiagotan. Ik. Konfesioa, 1.

Ezagunena Apostoluen Kredoa eta Nizeatar-Konstantinopolitar kredoa dira. Eliza mendebaldraren biak erabiltzen dira. Bigarrena ekialdetarrek eta mendebaldraren erabiltzen dute, \*eukaristia ospatzean batez ere.

"Sinesten dut" ere esaten da fede-aitormen hori.

3. Erlijiozko hizkeratik atereaz eta horrekiko analogiaz, edozein erakunde sozial edo politikok dituen funtsezko abiaburu edo printzipioen sortari esaten zaio kredoa.